



IÑAKI IBAIBARRIAGA, SAXO IRAKASLEA ARRASATE MUSIKALEN

Arrasate

P R E S S

1997ko
otsailak 28
353. zenb.

IKUSPEGIA
ITXARO
ARTOLA

IRITZIA
JESUS
LARRAÑAGA

30 GALDERATAN
ARANTZAZU
ZUBIA

KIROLAK
ANE LOPEZ
DE BERGARA

BERRIAK
TURISMO
EKINTZETARAKO
ZENTROA


Deba Arroa. Herriko pilotari gaztetxoek
harrobiak
50 urte
bete ditu.



"Bere gamako erreferentzia izaten jarraitzen du"

BEREZIA NAIZ

Fiesta



Nahi duzun guztia daukagu!

IRABAZLEA NAIZ



Nabarmentzea dut gustoko.

SEGURUA NAIZ



Argi nabil errepidean.

Segurtasunean liderra European.
Salmentetan liderra Deba Bailaran.

Eros ezazu zure Fiesta **1.350.000** pta.gatik (1.3i-60 cv).

Galde ezazu *Multi Opción* aukeragatik.

MUGARRI

Araba etorbidea z/g • Tel.: 79 07 44/54




Zergatik ez da enplegurik sortzen Euskadin?

Erantzuna samurra da: inbertsio eta berrikuntza falta dagoelako, hau da, sormena, kosteengatik eta publizitateengatik zabalduko den nobedaderik ez dagoelako.

Hain erantzun laburrak, sinpletasuna kontuan hartuta, behar bada harritu egin dezake irakurlea, ideia bakoitzaren atzean aipatutako hiru aldagaiei zentzua eta eraginkortasuna ematen dioten beste faktore batzuk badaude ere.

Izan ere, ondo ezaguna da berez eta teorikoki Euskadi helburu duten inbertsio ugari, enpresariak eurek desbideratu egiten dituztela beste toki seguruago batzuetara. Eta enpresari euskaldunen



Jesus Larrañaga

inbertsioek beren kabitik ihes egiten badute, zer esan genezake kanpoko inbertsioez, gure kaleetako giroagatik eta gure krispazio politikoenatik izututa. Azkar kontontzen ez badira, gera ezin daitekeen moduan suizidio ekonomikora garamatzate.

Hain kontzeptu sinplea zaildu egiten da, ez bakarrik arrazoi ekonomikoen ondorioz, baita bide politikoenatik, azkenean hauek dira eta kapitalarentzat eroso eta erraz diren harremanak sortzeko gaitasunik erakusten ez dutenak. Kontrakoa esaten bada ere, kapitala beldurtia da, errentagarritasuna aurkitu nahi izaten du, era seguruan, eta horretarako baldintza erosoan eskaintzen ez bazaizkio dauden tokian aurkitzen ditu.

Kosteei dagokienez,

esan beharra dago estatu barruan zona altuan gaudela. *Mundu mailako baliokidetzat prezioa* deitzen den kontzeptuaren segapean gaude, hau da, gainera datorkigu hemengo eta garatzen ari diren herrialdeetako lanaren prezio berdintasuna, espezializazioari balio erantsi gehiago ezartzen ez diogun neurrian. Kontuz soldata errenten gaiarekin, soldatak ez baditugu eta enpresaren errentagarritasunera egokitzen, sortzen ari diren herrialdeak merkatuaren jabe egingo direlako.

Eta azkenik, berrikuntza da sektore enpresarialaren gaitasun orokorrari lotuta dagoen faktorea. Honetan sartzen da, eta ez gutxi, ikerketa arloan historia-lanaren enpresen presentzia, nazioarteko enpresena, eta, orokorrean, teknologia aurreratuekin dabilzanena. Aipatutako faktorerik ezean Euskadik ez du erakargarritasunik, bestetik profesional maila handia dugu eta logistikoki toki ezin hobea herrialde modernoan barruan postuak igotzeko.

“Gainera datorkigu hemengo eta garatzen ari diren herrialdeetako lanaren prezio berdintasuna”

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Mania Agirre, Iñxaro Zubillaga, Mainer Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Disenua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Maria del Campo, Iban del Campo, Iñxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Fidel Bereizbar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Virginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña.

Banaketaren arduraduna: Jasone Mendizabai-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo Kortabarria.

Arrasateko Udaleraren laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntzaz
Eusko Jaurlaritzako Kulturaren laguntzaz

353. zenbaki honetan

1997ko otsailaren 28an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Lapiko handia	31
Astearen errepasoa.....	9	Kirolak jokoan.....	20/25	Foto zaharra	34

Ikuspegia
Jesus Larrañaga **3**

Euren ikuspuntutik
Iñxaro Artola **8**

Hogeita hamar galderatan
Arantzazu Zubia **30**

Asteko gaia
Deba Arroa.
Herriko pilotari gaztetxoek harrobiak 50 urte bete ditu..... **17/19**

190 pitotari ari dira Deba Arroa txapelketa jokatzeko.

28

ostirala

■ ZINEA

El Funeral Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ TRIKITIXA TALDEAREN BATZARRA

Trikitixa taldearen batzar orokorra arratsaldeko 7etan Monterronen. Ondoren aforia Alkartu elkartearen.

■ ANDALUZIA EGUNA

Arratsaldeko 8.30etan Al Andalus I. saria Euskadiko "Urteko andaluziarrari". 10etan Garcia Lorca Sainete antzerki taldea eta 11.30etan dantzaldia Feelings taldearekin. Ekitaldi guztiak Al Andalus elkartearen egoitzan.

■ KONTZERTUA GURE LEKU TABERNAN

S.E. Soul Band (Legazpiko Soul banda) taldeak kontzertua eskainiko du Gure Leku tabernan gaueko 11etan.

■ TXOMIN ITURBERI OMENALDIA: 10. urteurrena

Amaia antzokian, gaueko 10.30etan. Jaialdian Arrasateko Trikitilariak, bertsolariak, eta Guk Taldea. Ekin-tza politikoa berriz, Xabier Zubizarretak aurkeztuko du. Hizlaria: Xabier Alegria.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Larru Truk eta *Boikot*. Gaueko 9.30etan, Gaztetxean.

1

larunbata

■ ZINEA

Un dia inolvidable Alai zineman 5etan, 7etan eta 9.30etan.

■ RUGBY TOPAKETA

Euskadiko infantil mailako rugby topaketa goizeko 10etan Garagartzako rugby zelaian.

■ ANDALUZIA EGUNA

Goizeko 12etan festa sevil-larra. 2etan herri bazkaria. Arratsaldeko 4etatik 12ak arte jaialdia. Al Andalus egoitzan egingo dira ekintzak.

■ "TXIRI"ren OMENEZKO KONTZERTUA

Arrasateko Gaztetxean "Txiri"ren omenez kontzertua arratsaldeko 7etatik aurrera.

2

igandea

■ ZINEA

Un dia inolvidable Alai zineman 5etan, 7etan eta 9.30etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Arlaban, Dorletako Santutegia (bertan Dorletako amabirjinari lore eskaintza egingo diote), Marieta eta Arrasate, guztira 48 kilometro. Irteera goizeko 10etan Monterronetik.

■ IKARUS TALDEAREN KONTZENTRAZIOA

Kurtzebarritik Delta Hego eta Parapente jauziak goizean zehar. Ondoren Ikarus taldeko partaideek eta partaide ohiek bazkaria egingo dute.

■ OMENALDIA JOKALARI OHIEI

Arratsaldeko 4etan omenaldia emakumezko Mondra taldeko jokalaria ohiei eta sortzaileei. 4.30etan futbol partidua: Mondra - Eibartarrak.

3

astelehena

■ ZINEA

Un dia inolvidable Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA

Gaia: "Familia baloreen heziketan". Hizlaria: Pedro Hernandez, Tenerifeko La Laguna unibertsitateko irakaslea. Hezibidek antolatuta, arratsaldeko 6.30etan, Amaia antzokian.

■ BILERA AEDn


Euskararen Unibertoaren txostenari egindako ekarpenen azterketa egingo da. Ihardunaldietara joango direnei zuzenduta dago bereziki. Bilerara arratsaldeko 7etan AEDn.

4

asteartea

■ ZINEA

Un dia inolvidable Alai zineman 7etan eta 9.30etan.



Montte
EKIPAMENDU INTEGRALA • BARNE DISEINUA

Pablo Uranga, 1
Tel.: 79 38 22 • Faxa: 79 36 78
ARRASATE

Poligono Industrialia, 10
Tel.: 88 88 00 • Faxa: 88 88 07
BEASAIN

5

asteazkena

■ IPUIN KONTALARIA

Jose Mari Carrere ipuin kontalariak "Emakume Ipuinak" kontatuko ditu. Arratsaldeko 5etan Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan eta 7etan EKIÑeko lokalean.

■ HITZALDIA

Gaia: Alzheimer gaisotasuna. Hizlaria: Borja Arriola medikua. Arratsaldeko 7etan, San Andreseko parrokiaren lokaletan.

■ SOLASALDIA

"Euskal Herriko egungo egoera politikoa eta irtenbideak", arratsaldeko 7etan Monterronen. Bake proposamen ezberdinen edukinen aurkezpena egin ahal izango du edozein partaidek, eta gero eztabaida. ELAk, LABek, eta CCOOek antolatuta.

6

osteguna

■ ZINEA KLUBA

Cosas que nunca te dije
Amaia antzokian arratsaldeko 9.30etan.

■ HITZALDIA

Gaia: Alzheimer gaisotasuna. Hizlaria: Nekane Larrañaga, gizarte laguntzailea eta psikologoa. Arratsaldeko 7etan, San Andreseko parrokiaren lokaletan.

■ SOROSPEN ETA MEDIKUNTZA IKASTAROA

Euskal Mendizale Elkarteak eta Leintz bailarako mendi elkarteek mendi sorospen eta medikuntza ikastaroa prestatu dute apirilean emateko. Irakasleak Euskal Mendizale Federazioko medikua eta zuzendari teknikoak izango dira. Interesatuok Besaideren egoitzara zuzendu martxoaren 4an eta 5ean arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara. Prezioari dagokionez, federatuek 3.000 pezeta ordaindu beharko dute; ez direnek 4.000 pezeta.

■ NESKEN HIRUGARREN FUTBITO TXAPELKETA

AEDk antolatuta aurten ere Nesken futbito txapelketa egingo da, izenematea martxoaren 7a baino lehen egin behar da AEDKo lokalean edo 77 12 28 zenbakira deituta. Prezioa 5.000 pta. Bailarako neskek ere parte har dezakete.

■ ICTEK ANTOLATUTAKO IKASTAROA

"Laguntza harremanak eta komunikazio agureekin" gaiaren inguruan ikastaroa martxoaren 10tik 20ra arte. Klaseak astelehenetik ostegunera arratsaldeko 5etatik 7.30ak arte. Izena ematea ICTEn Loramendi 4 zenbakian. Prezioa 16.000 pezeta. Ikastaroan parte hartzen dutenek diploma jasoko dute.

■ PINTURA ERAKUSKETA

Iñaki Rivieren pintura erakusketa Harresi aretoan martxoaren 7tik 23ra arte. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.



BESAIDEREN MENDI ESKI IRTEERA

Martxoaren 8rako eta 9rako Besaidek Mendi Eski irteera antolatu du. Martxoaren 8ko ibilbidea Pla Dáste, Cristales eta Respumosora. 9an berriz,

Egunak: Martxoak 8 eta 9
Informazioa: Besaide. M.E.

Respumoso, Faxa eta Walconera. Interesatuok izenematea martxoaren 3an eta 4an egin behar duzue Besaideren egoitzan arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara.

MARTXOAK 8 EGITARUA

- ▶ **Martxoak 2**
Domeka
4,30etan **futbol partidua**
- ▶ **Martxoak 5** Eguaztena
5etan **ipuin kontalaria** Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan.
- ▶ **Martxoak 8**
Zapatua
Goizeko 9etatik aurrera **Azoka** Seberon.
Gaueko 9,30tan **herri afaria** Kataiden, Txartel salmenta ; EKIN; Emakume Asanbaiadan, Bionan, Garibai Etxean; Famili eta Gizarte Hezkuntzarako Zentruan.
- ▶ **Martxoak 9**
Domeka
Arratsaldeko 6,30etan **Mahaingurua**
Gaztetxean:
Emakumeon egoera.
- ▶ **Martxoak 15**
Zapatua
7,30etan Seberon
Bertso-saioa:
Ainhua
Agirreazaldegia
Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Unai Iturriaga
Gai-jartzailea:
Arantzazu Loidi.
- ▶ **Martxoak 21**
Eguakotza
Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian **antzerkia: Molestias Clownicas.**



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

Zuzenketa

Joan den asteko alean eta *Zenbakia* izeneko sailean, hankasartze bat egin genuen. Bertan, egunkarietako herrien kroniketako euskararen erabilerari buruzko datuak eskaini genituen, baina datuak ez ziren han esaten zen moduan kroniken gainekoak, publizitate kopuruei buruzkoak baizik.

LABeko KIDEEK BADAQUIZUE ZER EGITEN ARI ZARETEN ETXEZ ETXEO LAGUNTZA ZERBITZUKO LANGILEEKIN?

Desberdintasunak desberdintasun, betidanik pentsatu izan dugu oinarrizko gauzetan alde berean gundela:

- Langile behartsuenen eskubideak eta soldatak defendatzeko orduan ados egon beharko ginatekeela.

- Denondako hobekuntzak lortzeko hobe zela batera borroka egitea, bere afiliazio politiko edo sindikala medio jen-

dea diskriminatu beharrean.

Izan ere, urtarilaren 30ean ESK eta ELArekin batera udal batzarrari aurkezteko, aurreko eskakizunak jasotzen zituen eskari bat sinatu zenuten.

Ordutik gauzak aldatu egin dira:

1- Zuen jarrera azaldu edo batera lan egiteko, langile eta sindikatu guztien bileretara sistematikoki ez zarete azaldu.

2- Langileen datuak erabili dituzue (eurak emandakoak defendatzeko) aurkako iritzia sortzeko, gaiak kontestutik atereaz edo gezurrak lotsagabeki esanez.

3- Zuen harreman politikoak (HB) eta sindikalak (gizarte laguntzaileak) erabili dituzue langileen artean presio eta zatitze kanpaina burutzeko, lan baldintza eskasagoak onar ditzaten.

4- Langile batzuk *Goiz Argiren* baldintzak sinatzera behartu dituzue, bestela lanik ez dagoela esanez, eta gainera asanbladetara ez joatera behartuz, eta baldintza hobekoak eskatzen duten mobilizazioetan parte hartzea debekatuz.

Ez dakigu gauzak nondik joko duten, baina jakin ezazue tristura handia ematen

digula zuek horrelako gauzak egiten ikustea, normalean beste batzuek egiten dituztenezan salatzen dituzuenak.

Oker egotea gustatuko litzaiaguke, eta elkarrekin borroka egitea berriro.

Jose Ramon Landa eta Simon Martinez

DEMOKRATAK

Noraino iritsi dira gure demokrotak. Azkenengo gertaerak gogorak izan dira. Beraien "demokraziaren izean", hogeitamabost egun gose greban eta lau egun egarri greban zeraman Arrasateko gure Arkauz estraditatu eta torturatu egin zuten. Azkenengo hogeitazortean planteatutako bake proposamen demokrotiko bakarra planteatzeagatik atxilotu dituzte HBko mahai nazionaleko kideak. Eta herritarrek, manifestazio multitudinario batean Euskal Herriko arazoak konpontzeko irtenbide demokrotikoaren alde kalera irten garenean, demokrotek gidatutako ertzainek balaz tirokatu gaituzte....

Eraikitako demokrazia- ren muinean, Euskal Herriko nazio existentziaren ukatzea dago. Baina demokrazia hori legitimizatua egon dadin boterearen aldeko gehiengo berri bat fabrikatu beharra izan dute. Zapalkuntza dagoen leku guztietan, boterea monopolizatzen dutenek, betidanik, boterearen aldeko gehiengo bat osatu dute. Francoren garaian, "gehiengo isila" izan zen diktadura hori justifikatu zuena. Espainiako trantsizio politikoa, sektore berberarekin, baina orain "partidokrazia" eta komunikabideak gehiago erabiliz, "gehiengo demokrotikoa" osatu dute. Gure herrian, Fran-

coren diktaduraren helburuak eta gaur egungo demokrotaren diktaduraren helburuak, berdinak dira: espainiar inperioa mantentzea, gure herritarrei oinarrian dauden eskubide demokrotikoak ukatzea, disidentzia satanizatzea eta aplikatutako errepresioa justifikatzea.

Grekoen garaitik ikasi genuen demokrotiak herriaren boterea adierazten zuela; gatazkei aplikatutako logika sozio-politikoa, disidentziarekiko errespetua, emakumearekiko errespetua, eta herritarrei gaur eta etorkizunean partehartze aktiboa ziurtatzea, benetako sistema demokrotikoaren ezaugarriak direla.

Gure demokrotek aldiz, hauteskunde manipulatueta fabrikatutako gehiengo erabiliz oinarrizko askatasun eta eskubide demokrotikoak ukatu nahi dituzte; gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko logika dialektikoa, eskubideak ukatzeko, disidentzia satanizatzeke eta erresistentzia zapaltzeke, era kontrainsurgente batean erabiliz. Historia modernoak, honen erabilpenaren argudio galantak eman dizkigu. Gogora dezagun iparramerikanoek herri indiarrei aplikatutako txikizioa, edo Alemaniako gizar- tean naziek judeo eta ijitoekin egindakoa.

Hogeitazortea pasatu dira eta hemen dugu fabrikatutako demokrot berria: espainiar inperialismoan oso ondo txertatzen den pertsona, beti boterearen aldekoa, goikoarekin jopu eta behekoarekin otso dena, insolidarioa, autoritarioa, bere interes indibidualen arabera soilik mugitzen dena, herritarren eskubidekiko sentsibilitaterik ez duena, disidentziaren aurkako errepresioaren aldekoa, demokrotak!... nazkagarria.

Antxon Mendizabal eta Sagra Lopez

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 28

• Gauez: Corcuera. Musakola

Larunbata 1

• Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
• Gauez: Estella. Bergara.

Igandea 2

• Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina.
• Gauez: Estella. Bergara.

Astelehena 3

• Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
• Gauez: Mozos. Bergara.

Asteartea 4

• Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
• Gauez: Camacho. Bergara.

Asteazkena 5

• Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
• Gauez: Puy. Bergara.

Osteguna 6

• Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
• Gauez: Guellar. Bergara.

Memesa
79 42 22

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE


Domekan derbia Anoetan: Real-Athletik.

Noren aldekoa zara?



Rosa Garcia
(38 urte)
Langilea

Ez nekien ezer, baina ni Realaren aldekoa naiz, beti izan naiz. Athletikekoa ez behintzat, bilbotarrak harro samarrak dira eta.



Fernando Iñurritegi
(50 urte)
Langilea

Ni beti izan naiz Realekoa, nongoa izango naiz ba? Hori bai, bigarren Athletikekoa, gero Alaves eta Osasuna.



Aitor Alberdi
(29 urte)
Langilea

Realaren alde, beti izan naiz. Bilbotarrak dominanteak dira, harroak... beti nahi izaten dut eurak ere irabaztea, baina beti Realaren atzetik.



Maria Teresa Etxaniz
(66 urte)
Jubilatua

Ni Realaren aldekoa, goierritarra naiz eta, Beasaingoa.




Mari Karmen Iraola
(56 urte)
Etxekoandrea

Realaren alde nago, beti beti. Bigarren ekipoa Bilbo, ez daukat ezer euren kontra.



Miren Cabezas
(38 urte)
Etxekoandrea

Niri berdin zait, senarra Atletiken aldekoa da, eta alaba, berriz, Realekoa. Ni hor nago erdian, baina ondo eta garbi jokutzen badute berdin zait.



Cesar Cimiano
(31 urte)
Langilea

Realaren alde nago, beti egon naiz eta Athletikekin ez daukat problemarik. Hemen jaiotakoa naiz eta edukazioz Realekoa izan beharra daukat.



Emilio Zeziaga
(70 urte)
Jubilatua

Onenak irabaz dezala, baina neu egon Realaren alde nago, neure lehenengo ekipoa da.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Zugan pentsatuz, laguntzeko prest

- Neurriera egindako plantila bereziak.
- "Mariposa" oherako burukoak.
- Belauneko bereziak; eusteko eta kirolerako.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

Jili Jili

Martxa eta estilo
handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

USTEAK USTE

Ohorezko langabetuak

NEM dator astelehenan. HorreLa arrasatearrek ez dute tramiteak egiteko Eibarreraino joan beharrik izango. Hortik begiratuta, enplegu erakundearen itzulera poztekoa dela esan beharko.

Dena den, zalantzak ditut erakunde horren eginkizunen gainean. Goizean goiz jaiki eta pazientzia galdu barik, jende ilaretan egoten ikaste ko baliogarri izan zait INEM neure langabetu fase desberdinetan; baita, behin mahaitxora iritsi eta gero, irrifar batez erantzuteko itauntzaileren umore aldaketari. Eta nola ez, tramiteak eginda, hiru-hilabetero egutegiari begiradaxo bat emateko dinamikan sartzeko, sistematiko bihurtzeko. Onetik ikusten dizkiodan apurrak aurrekoak; txarretik, berriz, bakarra aipatuko dut, eta bera larria: langabeziari ez diola irtenbiderik emango, eta norberak bere kasa ezer egiten ez badu, erakundeagatik luzaroan egon zaitezkeela langabezian, ohorezko langabetu izendapena lortu arte, elkarte gastronomiko gehienetan jubilatzen direnei ematen zaien bezala.

Beñardo Kortabarría



Gura duguna, informazio euskalduna

Itxaro Artola

Asteburu honetan, kartel informatibo batekin egingo duzue topo etxeko atarian, 1996an buzoian jaso genuen publizitateak eta egunkarietako Arrasateko kroniketan euskarari eman zioten tratamendua, kopurutan, azalduz.

“Badatoz oinbe, oneik AEDkuok, euren txatxalakerixekin! Beste zerein inportantiaurik ez daukie ala, pape-lak neurketan ibili barik!”

Ekintza originala ez dela, konforme. AEDko Sentsibilizazio Sailak duela hamarren bat urte ekin zion, gaurko gizartean informazioak daukan indarrak jabetuta, iragarki eta herriko berrietan hizkuntz erabilera aztertu eta kaleratze-ari. Hala eta guztiz ere, 1996ko emaitzak ezagutu bezain laster uler-tuko duzue premiaren puruz jarraitzen dugula oraindik ere lan horretan.

Buzoietako iragarki, ohar eta antzerakoei dago-

kienez, %1,9 iritsi ziren euskaraz, %27,50 elebietara eta %70,60, hau da, hamarretik ia-ia zortzi, gaztelera hutsez. Gainera, erabilera ia testimonialaz gain, euskarazko batzutan hizkuntzaren jator-tasanari, kalitateari, egiten dioten eraso ere larria da. Zer egingo zenukete “la dozena de uebos a zien pesetas” dioen iragarki baten aurrean? Txantxetan hartu edo eskandalizatu, seguru asko. Euskarari ere ardura bera zor diogu bada, ezin ditugu oke-

“
Ezin ditugu okerrak,
euskaraz egin
direlako,
erdiokertzat hartu
”

rrak, euskaraz egin direlako, erdiokertzat hartu.

Bestalde, Arrasateko kronika dakarten hiru egunkariak, El Correo Españolek, El Diario Vasco eta Eginak ere, mesede gutxi egin zioten iaz euskararen normalizazioari. Neurketaren ondorio on bakarra El Diario Vascon euskararen erabilera %4,5etik %4,9ra igon egin dela dugu. Halere, portzentaia nano horrekin ezin esan euskarari tratamendu duina eman dionik. El Correo Españolen, berriz, urte osoan zehar txiripaz edo agertu da euskaraz albisteren bat eta beraz, 1995ean bezala, 0 borobila lortu du. Edozein modutan, Egin da aurten salaketa gogorrena merezi duena, %44,8tik %32,6ra jeitsi baitu erabilera.

Panorama gordin honen aurrean, ez dago amore ematerik. Oraingoaz, AEDtik gutun pertsonalizatu bat bidali zaie, urtero bezala, 1996an publizitateaz bezalaz zuten entitateei, euskarari emandako tratamendua baloratuz, eta aurreantzean jarraipen zorrotza egingo diegu jarrera hobetzen duten ikusteko. Zuek berriz, gure egoitzara ekar ditzakezue gaztelera hutsez jasotzen dituzuen paperak eta hemendik, kexa bateratua helaraziko diegu dagokion entitateari. Ea guztion indarrak eskatuta entzungor segitzeko gauza diren. ■

Itxaro Artola,
AEDko langilea da.

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

ostiraleko plenoaren errepassoa

■ Amaia antzokia bete beteta

Jende asko erakarri zuen Tanttaka taldearen *El Florido Pensil* antzezlanak. Larunbat gauean 711 lagun joan ziren antzokira, eta igande iluntzean 828. Sarreak bukatuta, igandean jendea ezin sartu geratu zen.

■ Alternatiba Demokratikoa plazaratu

Ostiral arratsaldean asanblada egin zen Seber Altube Plazan Alternatiba Demokratikoaren inguruan egingo diren ekintzen berri emateko.

Älde batetik, alternatibaren ardatzak jasotzen dituen orria herritarrei banatzeko buzonaketa nola egin erabaki zen; bestetik, Alternatiba Demokratikoarekin lotuta egingo diren ekintzetan parte hartzea eskatu zen.

■ ELA-ren egoitza inauguratuta

Ostiralean inauguratu zen ELAren egoitza berria Arrasaten. Goizean sindikatu desberdinetako kideak eta komunikabideak hurbildu ziren egoitzara, eta bulegoak zelan geratu diren ikusteko aukera izan zuten. Arratsaldean ELAko ordezkarien eta afiliatuen txanda izan zen eta Jose Elorrieta, sindikatuko idazkaria, ere bertan izan zen. Idazkariak esan zuenez, bulego egokia edukitzea funtsezkoa da baina garrantzia handiagoa dute sindikatua osatzen duten pertsonak. Elorrietak, gainera, aurtengo urterako ELAren lan ardatzak zeintzuk izango diren zehaztu zuen eta elkarrizketa bultzatuz gatazkari irtenbidea ematen ahaleginduko direla esan zuen.

■ Arrasateko webgunea aurkeztu

Asteazken goizean aurkeztu zuten Danka multimedia enpresakoek Arrasaterako prestatu duten webgunea. Aurkezpena Udaletxean egin zen, eta herriko alkatea ere bertan izan zen. Xabier Zubizarretak esan zuenez, Internetek mundua ezagutzeko aukera ematen du eta Udala zerbitzua osatuz joango da. Alkatearen ustez, herritarrendako ere erabilgarria izan daiteke Interneta, batez ere informazio urbanistikoa kontsultatzeko.

Dankako partaideek, berriz, ordenagailu eta guzti webgunea zelan geratu den erakutsi eta azaldu zuten. Joan den ostiraletik, webgunea publiko egin zenetik, 263 lagunek egin du bat Arrasateko web orriarekin.

“ Medrano epailea Arrasateko neska batekin ezkondu zen, eta handik gutxira zera pentsatu zuen, Euskaldunon Egunkariari adierazi dioenez: Euskal Herrian nengoan, familia nahiz lagunak euskaldunak izanik, eta beraz, euskara ikastea jo nuen integratzeko modurik onentzat, baina beti ere traba barik eta inolako arazo barik, prozesu normal bezala.

(...) Euskaraz kostata hitz egiten duen arren - ez naiz aditu, e!- erdarara igarotzeko aukerarik ez du sekula ematen. Praktika judizialean erabili ahal izateko ikastaroren bat falta zaio, -kalean ibiltzeko euskarak eta epaiketa batekoak antzik ez baitute-, baina euskaraz deklaratu nahi izan dioten batzuek egiteko modua izan dutela nabarmendu digu.

(...) Baina hemen diharduen epaile batek euskara derrigorrez jakin beharko luke ala ez? -Nik esango nuke komenigarria izan behar duela, baina derrigorrezkoa...”

Euskaldunon Egunkaria, 1997-2-16



LAGUN AROREN 30. URTEURRENA

Lagun Aroren 30. Urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zen joan den ostegunean. Ekitaldian Lagun Aroren hasierak gogoratu ziren bereziki. Jose Antonio Ardanza lehendakariak parte hartu zuen ekintza berezian, eta entzule gisa Javier Retegi eta Patxi Ormazabal sailburuak egon ziren.



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

BOLIÑETE

ERRETEGIAN

Martxoaren 13an SAGARDO EGUNA!

EROS EZAZU TXARTELA BERTAN!

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 39 91

HIES
EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

INEM astelehenean zabaldu

Martxoaren 3an, astelehenean, INEM Arrasateko bulegoan hasiko da zerbitzua eskaintzen. Bulego berriak Anbulategiaren parean daude, lehengo geltoki zaharrean.

Jaiotzak

- Elena Markiegi Mendieta. Urtarrilaren 31n.
- Danel Cornes Azula. Otsailaren 1ean.
- Josu Diaz Valle. 2an.
- Lia Etxagibel Altuna. 5ean.
- Mario Jurado Gomez. 11n.
- Naira Salaberri Velez de Mendizabal. 12an.

Ezkontzak

- Aitor Sasiain Loiti eta Maria Esther Herrera Fernandez. Urtarrilaren 24an. Zibilez.
- Ramon Trenado Gallardo eta Marta Mancebo Roa. 29an. Zibilez.

Hildakoak

- Fernando Atxa Aranburuzabala. Otsailaren 10ean. 62 urte.
- Gregorio Etxandia Gastaminsa. 14an. 81 urte.
- Bernardina Crespo Casanova. 18an. 90 urte.
- Julio Antonio Markaide Larrañaga. 22an. 85 urte.

Aurrekontuen plenoa seguruen datorren astean egingo da

Aurten 3.000 milioi inguruko aurrekontua izango du Udalak. Horri oniritzia emateko plenoa datorren astean egingo da seguruen. PPK izan ezik, udaletxean ordezkariak daukaten gainontzeko alderdiek hartu dute parte aurrekontuen lanketa prozesuan. Dena den, ez da lortu aurrekontu proiektu bat adosterik.

Desberdintasun nabarmenena, pertsonal aurrekontuetan egon daiteke. EB eta HB hainbat lanpostu finko egitearen aldekoak dira; hirukoak, berriz, behin behineko bezala ikusten ditu, Ferixalekuko frontoiaren inguruko ikuspuntuak eta jarrerak ere desberdinak dira: EAJ, EA eta HB Uharkapen frontoia egitearen aldekoak; PSE-EE eta EB, kontrakoak. EBk kirol instalakuntzen eta kirol beharren inguruko azterketa orokor bat nahi du, gero proiektuak onartzeko. Zentzu horretan aipatzekoa da HBk Moja-tegin zerbaitegiten haste-ko proposamena aurkeztu duela, eta baita Musakolako kiroldegian ere; baina ez du akordiorik lortu gainontzekoekin.

Iaztik datozen beste gaitzatuetan ere, bada desa-



Parrokiarentzat beste 25 milioi egongo dira aurten.

dostasunik: lur-zoru industrialalde batetik, eta parrokiaren eraberritzea bestetik. EB eta HB iaz hartutako konpromezuei segida ematekotan daude, baina ez berririk hartzeko.

EBk eta HBk Lezetxikiren gaia ere aurrekontuetan sartu nahi dute, inguruko lurra erosi eta aztar-nategiari babesa emateko. Hirukoak ez du proiektu hori lehentasunen artean ikusten eta horregatik ezetako eman dio. Gauza bera

esan daiteke Zigorrola eta Monterron oinezkoendakolotzeko proiektuarekin.

Aipatutakoak aurtengo aurrekontuen inguruan dauden desadostasun nagusiak, baina gainontzean adostasunera iristea lortu dute. Gauzak nola dauden ikusita, seguruen aurrekontuak onartzeko plenoan lehenengo desberdintasunak bozkatuko dira, gero hortik ateratzen dena adostutakoari gehitu eta osotasunean onartu ahal izateko.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76



Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

ITSASKI ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

Turismoa bultzatzeko zentroa eratuko du Mankomunitateak

Deba Garaian turismoaren sektorea garatzeaz arduratuko den zentroa eratuko du Mankomunitateak. Zentroak ez du turismorako bulegoek bezala funtzionatuko, hau da, ez du informazioa eman- go. Helburua, turismoa garatzeko promozioa eta gestioa egitea izango da. Lan hori egiteko lagun bat kontratatuko da baina oraindik erabaki gabe dago zentroa zein herritan zabalduko den. Mankomunitateak 6 milioi zuzendu ditu aurrekontuetan proiektu honetarako, eta Jaurlaritzak 3 milioi eman ditu. Elkartea irabazi asmorik gabekoa izango bada ere, enpresa pribatuak ere inplikatu nahi dira zentroko partaide izan daitezten. Mankomunitatearen ustez, sektore pribatuari ere interesa dakioke bailaran turismoa bultzatzea. Ekainerako zentroa zabalduko dela uste bada ere, juridikoki abenduan eratu- tuko litzateke elkarte moduan.



Portaloian jarri dute turismorako informazio puntua.

Orain dela urte batzuk hasi zen Mankomunitateak turismoa bultzatzeko urratsak ematen. Lehenengo, bailaran turismoa zelari indartu jakiteko ikerketa egin zen. Ondoren, bailarako herri ba-

tzueta turismorako informazio puntuak jartzea pentsatu zen, eta astean Arrasaten jarri da, Portaloian. Turismorako puntuaren bidez, Arrasaten eta inguruan zein aukera dauden jakin daiteke.

Trefasari informazioa eskatu

Lantegia Arrasateko beste tokiren batean kokatzeko aukerari buruz informazioa eskatu dio Trefasak Udalari. Informazio hori emateko Trefasak zein asmo dituen jakitea beharrezkoa duela eta, proiektua gehiago zehaztea eskatu dio Udalak Trefasari. Besteak beste, zenbat lur beharko duen galdetu zaio enpresa honi.

Euskararen erabilera neurtu

Urtero egiten den moduan, Arrasaten euskararen erabilera zenbatekoa den jakiteko neurketa egin da egunotan herriko kaleetan. Neurketa AEDk egin du Udalaren eskariz. Ohi moduan hainbat lagun kaleetan ibili da jendeak euskara erabiltzen ote duen entzuten. Datuak Udalera heleraziko dira, eta bertan egingo da balorazioa.

Barceló Bidaiak

BENIDORM

Martxoaren 27tik 31ra.

• PUEBLO HOTELA **

pentsio osoa + ardoa eta ura.

Autobusa Arrasatetik

Haurrak %50eko deskontua

23.000 pta.

PORT AVENTURA

Martxoaren 27tik 31ra.

CALYPSO HOTELA *** (Salou)

Pentsio osoa

Parkera sarrera egun baterako

Joan-etorria autobusez

helduak **32.300 pta.**

haurrak **17.800 pta.**

Maalako Errabala, 33 behea • ARRASATE • Tel.: 79 70 11

ASTE
SANTUA
97

Txosten teknikoak jaso arte ez da erabakiko Musakolako Kiroldegia itxi ala ez

Kiroldegiaren segurtasuna zelakoa den zehaztuko duten txosten teknikoak bukatu barik daudenez, AUKEAK astelehenean egin zuen batzarrean erabaki gabe geratu zen Musakolako kiroldegia-ekin zer egin: itxi ala ez.

Bi enpresari eta Diputazioari eskatu zaie txosten teknikoak egitea, eta oraindik idatziz ez da ezer jaso. Ahoz ala ere iritsi da enpresatariko baten iritzia, eta horren arabera kiroldegiaren egoera ez

da isteko modukoa. Esan bezala, idatzizko txostenak eduki arte ez da erabakirik hartuko.

Asteleheneko bileran, gainera, kirol instalazioen inguruan dauden proposamen desberdinei buruz hitz egin zen. Zer egin erabaki aurretik, Udalak kirol politika zehaztu behar dutela uste dute kirol taldeek, eta batzarrean horixe eskatu zieten alderdi politikoei. Azken horiek, eskaria onartu eta hori egiteko konpromezua hartu zuten.



Ahoz iritsi da enpresa baten iritzia, kiroldegia ez el dago isteko moduan.

Zaborrak eramateko zerbitzua adjudikatu

Alex Baldari adjudikatu dio Mankomunitateak Deba Garaiko zaborrak Sasietara eramateko zerbitzua. Alex Balda Donostiako pertsona bat da, baina medioak dituen lan hori egiteko.

Ate blindatuak jarriko dira Bake Epaitegia babesteko

Bake epailearen eskariz, Udalak ate blindatuak jarriko ditu Bake Epaitegian. Asteazkenean egin zen Hazienda Batzordean, aurtengo aurrekontuetan lan hori egiteko milioi bat eta erdi pezeta zuzentzea erabaki zen.

Bake Epaitegiak hainbat sabotaje ekintza jasan ditu azke-

naldian. Azken eraso urtarrilean jasan zuen, eta ondorioz, orain arte Udaletxean egon dira epaitegiko langileak zerbitzua eskaintzen.

Bake Epaitegia ez da ate blindatuak jartzea erabaki duen bakarra, herriko hainbat banketxe ere pertsiara bereziak jarri ditu erasoetatik babesteko.

Udan hasiko dira autopista egiten

Jose Julian Irizar, Garraio Diputatua, izan zen asteartean Eskoriatzan.

Irizarrek esan zuenez, uda inguruan hasiko dira Maltzaga-Urbina autopista eraikitze lanak. 100.000 milioiko kostua izango du obrak, eta kilometroko 2.000 milioi gastatuko dira.



OPEL 

**Zure OPEL banatzailea
ARRASATEN, zergatik
joan urrunago?**

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia • Tel.: 79 05 86 • ARRASATE

RKUZ



altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxa: 79 23 51

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
 - Liderrak muntaian
- Betiko muntaiak

FAGOR 

Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxa: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxa: 79 10 97

Aretxabaleta

ARKOk egoitza berria duenez, azkenaldian asko dira etxe berria ezagutzera etortzen direnak. Joan den ostiralean, esaterako, Almeneko ikasle batzuk etorri ziren. Beti moduan telebistako kamarek piztu zuten umeen arreta, eta kamara artean atera genien argazkia.

ALMENETIK BISITAN ARKORA



ONDO HASTEKO.... AFARIA!

San Felipe Apostol elkarteko zuzendaritza berritu egin denez, aurreko batean afaria izan zuten lehen-go eta oraingo zuzendaritzakoek. Argazkian partaide berriak ageri dira: Jose Mari Apraiz, Jose Ignacio Biain, Andres Lezeta eta Jose Vazquez baina kontua da lehendakari berria, Angel Arregi, ez zela argazkian atera. Hurrengoan harrapatuko dugu!

TXOMIN ITURBE, **borrokalari independentistaren omenez, MITIN-JAIALDIA.**

Arrasateko trikitilariak

Bertsolariak:

Haritz Lopategi, Ion Maia, Estitxu Arozena, Ainhoa Agirreazaldegia eta Xabier Silveira

Gai-jartzailea: Gabixola

GUK TALDEA

EKINTZA POLITIKOA:

Aurkezlea: XABIER ZUBIZARRETA • Hizlaria: XABIER ALEGRIA

AMAIA ANTZOKIAN • OTSAILAK 28 OSTIRALA • GAUEKO 10,30ETAN



HERRI BATASUNA





MONDRAREN ZOZKETA

Argazkikoak Mondra Kirol Elkarteak ateratako errifan irabazleak dira. Lehen saria 100 mila pezeta kirol materialean, Mikel Lopezek

eskuratu zuen. Bigarrena 50.000 pezetako saria Jose Mari Balanzategik, denok ezagutzeko Aizkorak eta hirugarrena 25 mila pezetakoa Mikel

Gorosabelek. Sariak Arrasate Kirolak dendak eman zituen. Aurpegiak ikusita ez du ematen sariak jasotzen ari direnik.

IZENAK

San Viator

ikastetxeak hainbat izendapen berri egin du. Kontseilu errektoreko partaide berriak honako hauek izango dira: Mari Flor Roa, Arantza Egurzegi, Itxaso Nuin, Ignacio Bedia, Andoni Uribetxebarria eta Francisco Javier Sanchez. Zaintza-batzordekoak: Lorea Ercilla eta Iñaki Arriaran. Errekurtso-batzordekoak: Karmele Garai eta Garbiñe Etxagibel.

ZENBAKIA

30 milioi

banatuko ditu aurten Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegoko herri eta toki mailako aldizkariaren artean. Kopuru hori kontzeptu desberdinen arabera banatuko da: 15 milioi, harpidetza zein kaleko salmenta bidezko sarrera propioen arabera banatuko direnak; 7.500.000, autofinantziazio indizearen baitan banatzeko; 4 milioi t,erdi, maiztasunaren, orrialde kopuruaren eta grafiko, argazki zein koloreen erabileraren arabera banatzekoak; eta 3.000.000 benetako defizitak aurrekontu osoarekiko duen portzentaiaren arabera banatzeko. 25tik gora herri eta toki mailako aldizkariaren artean banatu beharko da kopuru osoa.

HARATUZTEETAKO ARGAZKI ONENAK

Asteartean banatu ziren haratuzteetako argazki rally-ko sariak. Lehenengo saria **Jon Ozaetak** jaso zuen baina bigarren eta hirugarren sariak banatu barik geratu ziren.

Gazteen saria, berriz, **Begoña Peraltari** eman zioten. Haratuzteetako argazkiak ikusi nahi dituenak harresi aretoan izango du horretarako aukera.



EPELDE

Urtarrilaren 18an ezkondu ziren Arantzazun Sonia Berezibar atxabaltarra eta Aitor Telleria oñatiarra. Ezkon bidaian Karibera joan ziren, eta itsasontziz Karibeko hainbat irla ezagutzeko aukera izan zuten. Ikusi ote zuten Kurro?

HASI DIRA EZKONTZAK!

ANBOTO BODEGA

Anzo giro jatorria!

Anboto, 1 behea
Tel.: 77 09 15 ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa ■ Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea
eta hizkuntz bereziera)

Logopedia ■ Laguntza terapia
Mota guztietako eskola arazoak,
enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia
Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE



E U S K A L D U N O N

1997

Gida

Elektrikariak
 Suhiltzaileak
 Iturginak
 Aseguruak
 Sarrailegileak
 Bidaiak
 Jatetxeak

Informazioa:
 ☎ 943-300222

K
O
M
E
R
T
Z
I
A
L
A

Ileapaindegiak
 Ikuskizunak
 Argazkilariak
 Haurtzaindegiak
 Mekanikariak
 Dentistak...

e u s k a l d u n o n
Egunkaria

Deba Arroa, pilotaren mundua

50 urte betetzea ez da marka makala eta horiek dira hain zuzen ere Deba Arroa Pilota Txapelketak aurten bete dituenak. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko pilotariak elkartzen zituen txapelketa izatetik hamai-ka herrik osatutako txapelketa izatera pasa da denbora horretan. Deba erreka zeharkatzen dituen herri guztiek osatzen dute gaur egungo Deba Arroa Txapelketa.

U rrezko eztaiak bete dituen Deba Arroa afizionatu mailako txapelketa onenari-ko dela esan daiteke, herrien arteko Txapelketaren ondoren izen handiena ei du eta. Gaur egun horrenbeste pilotari biltzen dituen froga bi zonaldeetan zati-tuta dago: Goiko zonaldean Arrasate, Antzuola, Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaleta-ko pilotariak sartzen dira; behekoan Elgeta, Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Deba-koak. Txapelketak hiru hilabete irauten ditu urtariletik apirilera arte eta apirilean pilotari onenek finala jokatzen dute. Aurten Arrasateko Pilota Elkarteari antolatzaile lanak betetzea egokitu zaionez, apirilaren 20an Arrasaten bertan jokatuko da finala.

Arrasateko antolatzaileek hilabete dexente daramate Deba Arroa Txapelketa



Arrasateko pilotarien aurtengo helburua Deba Arroa Txapelketa irabaztea izango da. Ea zortea duten!

prestatzen. Izan ere, 190 pilotari elkartzen duen lehiaketak nahi baino lan gehiago ematen du Juan Osinagak pilota taldeko lehendakariak aitortu duenez. "Antolatze lanak ez

dira makalak izaten. Herri bakoitzarekin harremanetan jarri beharra dago pilotarien izenak hartu eta xehetasun guztiak zehazteko, gero gure arteko lan banaketa egin behar.

Geroko lana beste bat izaten da. Asteazkenero bederatzi laguneko lan taldea elkartzen gara eta lehenik eta behin emaitzak jaso eta aztertzen dira. Ondoren hurrengo ihar-

dunaldia prestatu. Era berean astero herri bakoitzeko arduradunei sailkapena luzatu behar zaie pilotariak nola dabilzan jakin dezaten. Horrez gain, finalerdi eta finalerako titulodun epaileak lortu behar dira”.

Arrasateko antolatzaileendako aipatutakoak ez dira aurten dituzten eginbehar bakarrak. Urrezko eztaiak direla eta, apirilaren 20an izango den finalak zentzu berezia izango du hainbat arrasatearrentzat, azken 50 urtetan finalean izan diren herriko pilotariak omenaldia jasoko dute eta. Guztira 25 lagun omenduko dituzte, kadete, jubenil eta seniorren

partidu erabakiorrenak hasi baino lehen. Ondoren Euskal Herriko eta Gipuzkoako lehendakariak, omendutakoak, antolatzaileak eta finalistek bazkaria izango dute.

Ekintza hunkigarri eta finalen eszenatokia Iturripeko frontoia izango da. Baina, gaur egun dagoen egoeran egonda, posible izango da finalak jokatu ahal izatea?

Pilotako ordezkariak apirilaren 20an jokatu diren finalerako frontoia txukuntzea eskatu diote Udalari. Eskakizuna seguruenera bete egingo da baina txukuntze horrek ez du hobetuko pilotariak instalakuntza aldetik bizi duten arazo larria.

Uharpeko

Pilotaren gunea izan den herriak, besteak beste Zurdo De Mondragon, Arriaran anaiak, Barandiaran eta Urta bezalako pilotari profesionalen jaioterria izan den Arrasatek, nola ez du ganorazko frontoirik?. Galdera hori hitzetik hortzera dabil Arrasateko pilotazale askoren ahotan. Pilota munduan ez da ulertzen 26 mila biztanle duen herri batean arauzko

frontoirik ez egotea eta pilota mundua musutruk aurrea daramaten lagunak ere kezkatuta eta nekatuta daude frontoiaren arazoarekin.

ITURRIPEKO FRONTOIA

Gaur egun Arrasaten eta auzotan frontoia egon badaude ere, arauak eskatzen dituen baldintzarik ez dute betetzen. Iturripeko frontoia, pilotan jokatzeko herrian dagoen toki aproposenak, ez ditu txapel-

Deba Arroa Txapelketako finalistak eta omenduak

Azken 50 urte hauetan Deba Arroa txapelketara heldu diren arrasatearrak omenduko dituzte apirilaren 20an. Guztira 25 lagunek jasoko dute omenaldia Deba Arroa Txapelketako urrezko eztaietan.

ALEBINAK

1988 Osinaga
Errasti

1990 Rubia
Etxebarria

INFANTILAK

1975 Urta
Isturiz

1978 Arrizabalaga
Korta

1979 Juantxo
Korta

1987 Korta
Markos

1989 Gonzalez
Zuazubiskar

JUBENILAK

1962 Arroiabe
Barandiaran

1968 Zubillaga
Garai

1972 Irigoien

SENIORRAK

1948 Garitano
Uribarren

1957 San Vicente
Jimenez

1961 Bengoa
Garai

1982 Lazpita
Zubillaga

Arrasate Deba Arroa Txapelketaren historia

Arrasatek 1948an irabazi zuen lehen aldiz Deba Arroa Txapelketa. Hasi eta bigarren urtean Garitanok eta Uribarrenek osatutako bikoteak Aretxabaletako Elortondo eta Ezpeleta bikotea gainditu zuen senior mailako garaile geldituz. Harrez gero, beste hamalau bider irabazi dute hain garrantzitsua bihurtu den txapelketa herriko pilotariak.

SENIOR

1948 Garitano - Uribarren

JUBENILAK

1962 Arroiabe - Barandiaran

1973 Irigoien - Zubillaga

1978 Isturiz - Urta

1979 Isturiz - Urta

1981 Juantxo - Korta

1982 Juantxo - Korta

1991 Zuazubiskar - Korta

1993 Gonzalez - Errasti

INFANTILAK

1975 Urta - Isturiz

1976 Urta - Isturiz

1978 Arrizabalaga - Korta

1979 Juantxo - Korta

1988 Korta - Marcos

1989 Gonzalez - Zuazubiskar.

Frontoia, ametsa ote?

ketak jokatzeko legeak eskatzen dituen baldintzak. 36 metroko luzeera, 10 metroko zabalera-dun kantxa eta beste horrenbeste altuera, lau metro térdiko kontrakantxa eta harmailak behar-ko lirateke ganorazko frontoia izateko. Hala ere, une honetan pilota taldean dauden 90 pilotari-iek, Iturriekin konformatu behar izaten dute. Arazo larriena pilotaren ordezkarien iritziz ez da frontoi arautu bat ez izatea, duten instalakuntza bakarraren egoera petrala baizik. "Iturrieko frontoia herrian dugun onena da, baina publikoa denez jende guztiak sartzeko du aukera. Patinekin eta umeak jolasteko sartzen direnez, lurra labankor bihurtzen da. Pilotariak jokatzeko hasten direnean beldur handiagoa diote labantzeari pilotari gaizki emateari baino. Horrez gain, teilatuko uralita leku askotan apurtuta dago, eta euria egiten duenean putzuak sortzen dira. Bestalde, sarea ere zaharra denez zuloak ditu. Horrelako egoerarekin nola demontre bultzaz genezake pilota?". Pilotari-ek entrenatzeko arazo larriak dituzte baina eguraldi txarrarekin eta txapelketa bat jokatu behar denean areagotu egiten da arazo-
a. "Askotan gure kontra jokatzera kanpoko jendea etortzen da. Egun horretan euria egiten badu ez dago jokatzetik eta aurkari-iek ulertarazi behar zaie beste toki batera joan behar dugula. Azken aldean eguraldi txarrarekin, Aramaiora joan izan gara baina hori ez da irtenbidea".



Uribarren eta Garitano izan ziren Deba Arroa txapelketako lehen irabazle arrasatearrak. 1948. urtean irabazi zuten Aretxabaletako Elortondo eta Ezpeleten aurka.

FRONTOI BERRIA

Aipatutako arazoei irtenbidea emateko duela 15 bat urte frontoi berri baten beharra aldarrikatzen hasi ziren pilotako ordezkariak. Urte haue-
tan Udalaren aldetik era guz-
tietako oztupoekin egin dute
topo, diru falta, herrira ego-

kitzen zen proiektu baten fal-
ta... Orain berriz, badirudi
pilotarien eta Udalaren gus-
toko proiektu bat lortu dela.
LKS enpresak Uharkapen erai-
ki nahi den arauzko frontoi-
aren proiektua egin du. Proiek-
tua Udalaren esku dago. Une
honetan Hirigintza sailekoak
proiektua aztertzen ari dira.
Frontoia ez da bakarrik pilo-
tariantzat izango. Pilotan
jokatzeko frontoi nagusi
bat eta hiru txiki egongo
lirateke entrenatu eta
pilotari txiki-
nak aritzeko.
Gimnasioa
eta sauna ere
bertan kokatu
lirateke.
Horrez gain,
beste kirol tal-

deendako kantxa bat egongo
litzateke eta baita taberna ere.
Iaztik frontoia eraikitzeko 50
milioi daude gordeta eta aur-
tengo aurrekontuetan beste
150 milioi ezarrita daude.
Jakina, aurrekontuak onartu
arte itxaron behar Uharpe-
ko frontoi berriaren lanak aur-
ten hasiko diren jakiteko. HB,
EAJ eta EA proiektuaren
alde azaldu dira. PSE-EErent-
zat Uharkapeko frontoia ez da
herriak une honetan duen
behar handiena eta kontra
dago. EBk ere ez dio Uhar-
peko frontoiari baiezko botoa
emango. Eurentzat herriak
frontoia behar du baina ez
Uharkapen egin den proiektu-
a. Alderdien jarrerak ikusi-
ta, aurten has daitezke fron-
toi berria eraikitzen. ■

**Uharkapeko frontoia
errealitate bihur daiteke
aurrekontuetan onartze bada**

Itxaro Zubillaga

Igerilaria

ANA LPZ. DE BERGARA

“Une honetan igeriketa ez nuke ezergatik utziko”

— Estatuko txapelketan hartu behar duzu parte uztailean, zein asmorekin zoaz?

— Iazko denbora hobetzea gustatuko litzaidake eta ahal bada dominaren bat eskuratzea. Nik fondoan hartuko dut parte, 1.500, 800 eta 400 metroan. Garai honetan denbora onena 400 metroan daukat, lau segundutan hobetu dut eta.

— Prestakuntza berezia egiten duzu?

— Ez, taldekideekin batera prestatzen naiz. Egunero ditugu entrenamenduak eta ez dugu ezer berezirik egiten. Ekainera arte ez dira entrenamenduak gogortuko.

— Monoaletarekin ibiltzen zara. Aleta barik zer moduz?


— Ez oso ondo. Sekula ez dut aleta barik entrenatzen, beraz, petral samar ibiltzen naiz.

— Zerbaitegatik utziko zenuke igeriketa?

— Ez, orain oso gustora nago eta ez nuke ezergatik utziko. Gainera bigarren REM ikasten nabil eta ondo daramatzat ikasketak eta igeriketa.

— Zer eman dizu igeriketak?

— Lagun onak egin ditut eta primeran pasatzen dut. Horrez gain, irabazten dudanean poz handia



SASKIBALOA Noiz garaipena?




Urbina Maltzaga zorte barik dabil azken boladan. German Mongeren mutilak saiatu saiatzen dira, baina ahalegin horrek emaitzetan ez du fruiturik ekarri. Datorren zapatuan Arrasateko taldearen arerioa Sant Josep izango da. Kataluniako taldea 29 punturekin 8. tokian dago eta gaurdaino bederatzir neurketa irabazi ditu, hamaika galduz. Urbina Maltzagak oraindik azken aurreko tokian jarraitzen du, Mollet azkenarekin parekatuta 25 punturekin.

ESKUBALOA Irabazi behar derrigorrez



Arrasate Eskubaloi taldeak hil ala biziko partidua jokatuko du Tres de Mayo taldearen aurka domekan eguerdiko 12etan Iturripen. Ibon Alzelairen mutilek mailari eutsi nahi badiote derrigorrez irabazi behar dute. Gainera Tres de Mayo taldea arrasatearren aurkari zuzena da. Domekoa ez da hil ala biziko partidua bakarra, denboraldia bukatzeko etxean jokatuko dituzten beste bi neurketak ere erabakiorrak izan daitezke eta dauden mailan jarraitzeko.

RUGBYA Berriz liderra aurkari



Patxi Gorosabelek zuzentzen duen taldeak berriro liderra izango du aurrez aurre zapatuan. Azken ihardunaldian Arrasate

Eibarren kontra nagusitu zenez, Getxo jarri da sailkapeneko buruan eta talde horri irabaztea izango dute helburu arrasatearrek. Partidua Bizkaian jokatuko da arratsaldeko 4etan.

FUTBOLA Mundarro aurrean



Preferente mailako Mondrak bi puntu galdu zituen Ilintxaren kontra, beraz hirugarren postutik gora egiteko datorren zapatuan jokoan egongo diren hirurak eskuratzen saiatu beharko da. Mundarrok dena dela, ez dio gauzak samur jarriko, Astigarragako taldea puntu premian dago eta. Neurketa zapatuan arratsaldeko 4etan jokatuko da Zarkumendegi futbol zelaian. Mondrak oraindik baja ugari ditu eta horregatik baliteke erregional taldeko hainbat jokalarik goiko taldean jokatzea.

ATLETISMOA Domina ugari Arrasatera



Arrasate Atletiko taldeko korrikalariak Anoetan izandako kadete eta jubenil mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten. Unai Sarabiak 60 metroan zilarrezko domina lortu zuen. Estatuko Txapelketara joateko gutxieneko denbora lortuz. Fernando Nogalesek 600 metroan brontzezkoa. Pertika jauzian Jonatan Perez bigarren geratu zen. Pisu jaurtiketan Anartz Azkarra ga hirugarren. Urrezko domina Oliver Fernandezek lortu zuen 800 metroan eta zilarrezkoa Iban Juezek 3.000 metroan.

Mondra emakume taldearentzat ospakizun berezia

Rosi Otaduy eta Roman Lopezen bultzadaz Mondra elkartearen emakume taldea sortu zenetik 10 urte igaro dira. Sasoi hartan inork gutxi espero zuen herriko hainbat neska futbolzaleak osatutako taldeak etorkizuna izaterik, baina ekinaren ekinez talde sendoa lortu da. Mondra emakume taldetik 10 urte horietan makina bat emakume pasa da eta ez dira gutxi izan entrenatzaile lanetan ibilitakoak. Rosi eta Romanen ostean, Fernando Aguiriondok hartu zuen taldeko gidaritzaren denboraldi erdi ibili zen eta beste erdian Jabi Tramon. Ondorengo bi urtetan Jose Vazquez. Jesus Mari Barrutiabengoak gaur egungo preferente mailako entrenatzaileak ere, bi urtez emakumezkoen taldea gertutik ezagutzeko aukera izan zuen. Gaur egun berriz, Juanina Garai da misterra.

Emakume taldea sortu eta osatu duten lagunek omenaldia jasoko dute datorren domekan. Mondra Kirol elkarteak Rosi Otaduy eta



Egun berezia izango dute Mondrako emakumeek domekan.

Roman Lopez sortzaileei plaka bana oparituko die omenaldi gisa. Horrez gain, emakume taldean ibili diren 35 jokalarik beste omenaldi bat jasoko dute. Omenaldiko ekintza arratsaldeko 4etan hasiko da eta 4.30etan Mon-

drak Eibartarrak taldearen kontra neurtuko ditu indarrak ligako neurketan. Ekitaldia Mondra kirol elkarteak eta emakume sailak antolatu dute. Atxabalpekoa bukatu ondoren, arratsaldeko 7ak aldera guztiarentzat luntxa izango da.

Aerobitona Oñatin

Beti Ona gimnasioak antolatuta Aerobiton txapelketa egingo da martxoaren 15ean Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Monitore lanetan Arrasateko Beti Ona eta Saioa gimnasioko eta Aretxabaleta eta Bergarako aerobik irakasleak izango dira. Aipatutakoek gain, Donostiatik Santi Idigoras etorriko da. Txapelketan parte hartu nahi izanez gero, 500 pezeta ordaindu behar da eta ondorengo kontu korrontean sartu (Kutxa 21010057580121884373).

Gimnasia erritmika

Arrasateko gimnasia erritmikako neskek eskolen arteko Gipuzkoako Txapelketan hartu zuten parte. Arrasateko ordezkariak emaitza bikainak lortu zituzten 95 partaideren artean. Alebinetan esku libretan Idurre Garcia izan zen lehena, bigarrena Maria Etxeberria; infantiletan sokarekin arrasatearrek bigarren, hiru-garren eta laugarren postuak eskuratu zituzten: Miren Bragado, Edurne Canas eta Miren Lazkano; kadetetan uztaiarekin Maite Albes lehen tokian sailkatu zen eta Esther Fernandez bigarrenen.

Dorletako Ama eskolaren aurkezpena



Dorletako Ama Txirrindulari eskolak aurtengo denboraldiko aurkezpena egin zuen zapatuan Gatzagan. Aurten 50 txirrindulari egongo dira hiru taldetan banatuta: infantilak, lehen eta bigarren mailako kadeteak eta jubenilak. Horrez gain asteazkenean ATE afizionatu mailako taldea aurkeztu zen Abaroan. 17 txirrindularik osatzen dute taldea.

"Ikarus" en kontzentrazioa

Ikarus Delta Hegoa eta Parapente taldeak 10. urteurrenaren ospakizunen barruan Kurtzebarritik salto egiteko topaketa antolatu du domekarako. Taldeak igaro diren lagun guztiak daude gonbidatuta, gainera gero bazkaria izango dute.



Azken putzak besterik ez Zaldibarren

Lehen fasea bukatzeko falta diren bi ihardunaldiak erabakiorrak izango dira. Hainbat taldek partidu horietan lortutako emaitzei esker sailkatuko dira edo txapelketa utzi beharko dute. Batez ere, lehia handiena B multzoan dago, oraindik sei postu daude jokoan eta. Emozioa gogorrek gustatuz gero, Zaldibar eta Iturripen duzue zital

Laburrak

■ KANPORATUA

Borrock'n Roll taldeari egokitu zaio ihardunaldi honetan txapelketa uztea. Bigarren aldiz epaitzera aurkeztu ez direnez antolatzaileek kanpoan utzi dute taldea. Lehen fasean hamar talde kanpoan.

■ SAILKATUAK

Joan zen astean talde gutxi sailkatuta bazegoen ere, 19. ihardunaldian lortutako emaitzei esker dextentek lortu du bigarren faseko txartela. A multzoan Irati STS, Betraye, Lora-tegi, Arrogoi Taberna, Aurre-

ra Bolie, Totem eta Galartza Kontenedoreak. Hiru postu baino ez dira falta. B multzoan Naranja Mekanika, Okoretegi eta Cerveceria Leintz. Multzo honetan lehia handiena dago. Izan ere, laugarren postutik bederatzigarrenera

arte edonor sailka daiteke. Azken bi ihardunaldiak beraz, hil ala bizikoak. Dn sortu Informatika, Txeyenex, Nuevo Taberna, MSM Ingenieria Integral, Sokoakoak eta Orlando Piratas lasai egoteko moduan daude. Jokoan lau postu.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Hezkuntza pertsonalizatu bat,
ingurugiro libre batean,
baliabide aurreratuenekin,
eta profesional onenekin.

Eman lehentasuna zure etorkizunari

Haur hezkuntza • Lehen hezkuntza • DBH

ARRASATE




79 20 92

La Merced Taldea (Arrasate • Eibar • Gasteiz • Leioa • Zumarraga)


Gura duguna, informazio euskalduna!

1996ko euskararen erabileraren neurketa

Buzoietako publizitatean



Prentsako herri kroniketan



■ Gutxi eta petral azaltzen da.

■ EGINek asko jeitsi du.

■ El Diario Vascon txarto mantentzen da.

■ El Correo Españolen testimoniala ere ez da euskararen erabilera.

Informazioa euskaraz jasotzeko
eskubidea, noizko?

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	19	17	1	1	105	33	35
Betrayer	19	16	0	3	110	42	32
Lorategi	19	14	3	2	69	39	31
Arrogoi tab.	19	15	0	4	73	56	30
Aurrera Bolie	19	13	2	4	100	59	28
Totem	19	11	2	6	101	52	24
Galartza kont.	19	11	2	6	84	55	24
Pipwhis	19	10	2	7	71	55	22
Onaniereng	19	10	2	7	53	64	22
DKB	19	8	5	6	59	50	21
Abinagraus	19	9	2	8	82	59	20
Ojo Avisore	19	9	2	8	84	70	20
Me la pela	19	8	2	9	70	61	18
Baneuko	19	8	2	9	44	49	18
Berango sukald.	19	7	3	9	75	77	17
Leya	19	6	1	12	61	87	13
Potosorri	19	6	1	12	54	85	13
Viboras	19	5	2	12	73	98	12
Alai gozokiak	19	2	5	12	38	100	9
Kriskibalda	19	2	3	14	34	76	7
Etxe Mobil	19	1	0	18	19	156	2
Kaxi Ganamos	19	0	0	19	3	39	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecan.	19	17	0	2	137	46	34
Okoretegi	19	15	3	1	95	32	33
Leintz garag.	19	14	3	2	106	36	31
Insert Coin	19	11	2	6	84	48	24
Ke Oxtias!!	19	10	4	5	69	54	24
Jotakabau	19	10	4	5	61	69	24
Diego Antonio	19	11	0	8	100	71	22
Pepelus	19	9	4	6	82	66	22
Los Innombrables	19	8	6	5	81	73	22
Argi Ibili	19	10	0	9	94	35	20
Fosforos	18	9	2	7	84	76	20
Los Heredia	19	9	2	8	71	71	20
Motz	19	8	4	7	65	80	20
ZZPPW7	19	7	5	7	86	85	19
Sobredosis de txe.	19	8	2	9	71	79	18
La mosca gao	19	6	4	9	99	103	16
Perrahotsa	19	6	3	10	50	70	15
Gualtrapas IK	19	5	1	13	55	100	11
Kinder Konpresa	18	4	1	13	63	101	9
Ganbelas	19	3	0	16	53	94	6
Elisabeth	19	1	3	15	45	149	5
Hapoeel Jamon	19	0	1	18	36	149	1



Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Emaitzak

A taldea

Abinagraus 4 - Leya 3
Betrayer 4 - Potosorri 1
Ojo Avisore 3 - DKB 2
Arrogoi tab. 1 - Pipwhis 0
Kriskibalda 0 - Onaniereng 1
Irati STS 1 - Kaxi Ganamos 0
Lorategi 5 - Totem 3
Alai gozokiak 6 - Viboras 7
Aurrera Bolie 7 - Etxe Mobil 1
Baneuko 3 - Galartza kont. 0
Me la pela 6 - Berango sukald. 3

B taldea

Okoretegi 7 - Jotakabau 2
Argi Ibili 0 - Leintz garagar. 1
Ke oxtias!! 3 - Naranja mec. 5
Ganbelas 3 - Pepelus 4
Insert Coin 2 - Los Heredia 3
Motz 4 - Gualtrapas IK 3
ZZPPW7 4 - Elisabeth 2
Los Innombrables 2 - Fosforos 8
Kinder konp. 16 - Hapoeel Jamon 1
Sobredosis 4 - Diego Antonio 2
Perrahotsa 4 - La mosca gao 9

D taldea

Sokoakoak 1 - Rotor de Bolb. 0
Lautherbrunnen 4 - Txeyenex 6
Iluna taberna 0 - AC Surcos 1
Orlando Pirates 9 - KK Jaurlari. 2
Bedarreta tab. 2 - Adelaida Aldibi 7
Danok Lagun 1 - Tronkoteak 0
Cartonajes Igamo 4 - Hirei 4
MSM Ing. Int. 6 - Los Dimy 5
Nuevo taberna 5 - Borrock'n roll 0
Koka Juniors 1 - Anbotoste KT 0
Bukanak 0 - Sortu Informatika 1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Sortu Informatika	19	15	2	2	96	40	32
Txeyenex	19	13	4	2	85	47	30
Nuevo tab.	19	12	4	3	111	53	28
MSM. Ing. Int.	19	14	0	5	84	59	28
Sokoakoak	19	13	1	5	99	62	27
Orlando Piratas	19	12	2	5	88	71	26
Bedarreta tab.	19	11	1	7	68	53	23
Adelaida Aldibi	19	11	1	7	85	67	23
AC Surkos	19	10	2	7	122	69	22
Koka Juniors	19	9	3	7	74	68	21
Danok Lagun	19	9	3	7	58	63	21
KK Jaurlaritzari	19	10	1	8	68	79	21
Los Dimy	19	9	1	9	70	79	19
Hirei	19	7	2	10	53	82	16
Lautherbrunnen	19	8	0	11	54	89	16
Cartonajes Igamo	19	6	3	10	52	63	15
Bukanak	19	6	0	13	55	82	12
Tronkoteak	19	6	0	13	34	88	12
Borrock'n roll	19	5	1	13	83	92	11
Anbotoste KT	19	4	0	15	32	58	8
Rotor de Bolbog.	19	1	2	16	7	51	4
Iluna taberna	19	1	1	17	31	94	3

Irudia



ASTEBURUAN JAI. Ojo Avisore, Naranja Mekanika, Kaka Jaurlaritzari, Bedarreta taberna eta MSM Ingenieria integral taldeek atsedena izango dute 20. ihardunaldian. Argazkikoak beza-la neurketak lasai ikusteko moduan izango dira.

Hurrengo partiduak

20. ihardunaldia

Martxoak 1. Larunbata

Zaldibar

8.50 Potrosorri - Abinagraus
10.00 Hapoeel Jamon - Los Innombrables
11.00 Los Dimy - Cartonajes Igamo
12.00 Totem - Irati STS
13.00 Hirei - Danok Lagun
14.00 Pepelus - Ke Oxtias!!
15.00 Me la pela - Leya
16.00 Fosforos - ZZPPW7
17.00 Adelaida Aldibi - Orlando Pirates
18.00 La mosca gao - Sobred. de Txeira
19.00 DKB - Betrayer

Iturripe A

12.00 Diego Antonio - Kinder Konpresa
13.00 Sortu Informatika - Koka Juniors
14.00 Perrahotsa - Jotakabau
15.00 Viboras - Lorategi
16.00 Los Heredia - Ganbelas

Iturripe B

13.00 Gualtrapas IK - Insert Coin
14.00 Onaniereng - Arrogoi tab.
15.00 Etxe Mobil - Alai gozokiak
16.00 Berango sukaldeak - Baneuko

Martxoak 2, Igandea

Zaldibar

8.50 Txeyenex - Sokoakoak
10.00 Elisabeth - Motz
11.00 Leintz garag. - Okoretegi
12.00 Galartza kont. - Aurrera Bolie
13.00 AC Surkos - Lautherbrunnen

Haritz Etxeberria "Txiri" gogoan izateko kontzertua bihar Gaztetxean

Irailean hil zen Haritz Etxeberria "Txiri"ri omenaldia eskainiko zaio bihar, zapatuan, Arrasateko Gaztetxean arratsaldeko 7etatik aurrera.

Omenaldia Haritzen lagunek antolatu dute eta "Txiri" musikazale amorratua zenez, zer hobeto omenaldi gisa kontzertua eskaintzea baino. Lagunek, hala ere, ez dute aurreratu zein taldek joko duten bihar, ko kontzertuan. Eurek esan bezala, garrantzitsuena ez da kontzertua, baizik eta "Txiri" gogoan izatea, eta horregatik, ez dute kontzertuaren zehaztasunik emango. Hori bai, hainbat taldek joko du, eta herriko taldeez gain kanpotik ere etorriko da talderik kantatzera.



Haritz (argazkian kaskoak dituena) Iskanbila taldeko abeslaria zen.

Musika taldeei dagokienez, aurrez jakin daitekeen gauza bakarra zera da: Iskanbila taldeak joko duela. Haritz Iskanbila taldeko abeslaria

zen, eta hil zenean taldea make-ta bat ateratzekotan zebilen. Zorigaitzeko heriotza eta gero Iskanbila taldea ez da desegin, eta bihar ere taula gainera igo-

ko dira "Txiri"ren omenez.

GOIZEAN ERRAUTSAK AIRERATU

"Txiri"ren lagunak arratsaldean Gaztetxean elkartuko dira, eta goizean familiartekoak eta hurbileko lagunak Haritzen errautsak aireratzera joango dira. Haritzen errautsak zabaldu gabe daude oraindik, eta bihar goizean Besaide eta Udalaitez arteko toki batean aireratu dituzte. Ondoren bazkaria egingo dute baina bazkarian familiartekoak eta hurbileko lagunak elkartuko direnez, lagun horiek jakinarazi dute aurrerago antolatuko dutela bazkari bat "Txiri"ren lagun guztiendako.



AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea
ARRASATE
Tfnoa: 79 09 09

SOLARIUM-A

UVA izpirik?


Bai, eskerrik asko, baina... Fototipo ikerketa egin eta gero, eta guztiz bermaturiko tresna batez.

Ez utzi pasatzen eskaintza hau!

Eskaintza Berezia!

900 pta. sesioa.

Eskaintza 97ko martxoaren 26an bukatzen da.



Txanda eskatu 79 09 09 an.

IÑAKI IBAIBARRIAGA

“Faltan botatzen dut ikasleek seriotasun gehiagoz ikatea eta praktikatzea”

Iñaki Ibaibariaga saxojole profesionala da. 35 urte ditu eta Eibarkoa da. Arrasate Musikalen saxoa irakasten die hainbat gazte arrasatearri, baina berea jazz da. *Tennessee* musika taldeko kide izan zen bost urtez eta makina bat bider jo du telebista programetako orkestratan. Gaur egun kontrabaxu, bateria eta saxo hirukote batean ari da taldea aurrera atera nahian.

— Noiz hasi zinen saxoa jotzen?

— Berandu samar ekin nien musika ikasketei, hamasei urterekin. Saxoa jotzen Gasteizko musika kontserbatorioan ikasi nuen eta gero Madrilan eta Bartzelonan ibili nintzen. Batez ere jazz-aren alorra landu dut.

— Betidanik izan zenuen garbi saxoa jo nahi zenuela?

— Saxora heldu arte, prozesu logiko bat eraman nuen: hasieran rockak erakarri ninduen, gero flauta trabesera jotzen hasi nintzen eta gero saxoa. Saxoak jazzera eraman ninduen. Hamasei urte nituela solfeoarekin hasi nintzenez, bokazioz ekin nion musikari eta orduan argi ikusi nuen bizitza musikari eskaini nahi niola.

— Saxoa jo izanak ez dizu lan eremua murriztu?

— Saxoa jotzeak badu gauza on bat: estilo desberdinetan ibili ahal izatea. Instrumentu komertzial samarra da eta horrek ahalbidetzen du egoera desberdinetan jotzea, adibidez, txarantetan, telebistan, jazz taldeetan... Egia da saxoak orkestratan jotzeko bidea isten duela baina beste batzuk zabaltzen ditu, niri gehiago interesatzen zaizkidan bide batzuk.



— Zein taldetan jo izan duzu?

— Madrilgo *Big Band* musiko tailerrean jo izan nuen eta baita *Tennessee* musika taldean ere. Bost urte ibili nintzen talde horretan baina nire bizitzako etapa bat baino ez zen izan. Taldeak aurrera jarraitzen du eta uste dut disko bat prestatzen ari dela. Agian modan jarriko da berriz ere, 92tik hona gainbeheran egon da eta. Pepe Navarroren *Por fin viernes* programako orkestran ibili nintzen ere eta baita *Toma y Dacia* saioko orkestran. Dena dela niri jazz-aren alorra gustatzen zait gehien eta momentu honetan hiru laguneko talde batean nago entsaiatzen. Kontrabaxu bat, bateria bat eta saxo bat gara. Jazz jotzen dugu, baita Latinamerikako eta Euskadiko musika ere.

— Arrasate Musikalen zenbat ikasle dituzu?

— Hamar gutxi gorabehera. Ikasleengan interesa ikusten dut baina hemen musika afizio moduan ikusten denez, faltan botatzen dut nire ikasleek seriotasun gehiagoz ikatea eta praktikatzea.

aste gazte

■ INEMeko IKASTAROK

• Deba Garaian burutuko diren ikastaroak: jardingintza, matrizeria, torno CNC. Programazioa, egiztazaile mekanikoa, gestiorako aplikazio informatikoak, ordenadoreen komunikazioa sare lokaletan, errepide-garraio teknikoak, atzeriko merkataritza, igeltsu dekoratzailea, geriatría laguntzailea, automatismoak eta industri prozesu elektrikoak, MAG soldadura erdiautomatikoa. Informazio gehiago Gazte Bulegoan.

■ BEKAK

• Arabako Diputazioak, Gasteizko museoetan ikerketa lanak burutzeko bekak antolatzen ditu. Epea: martxoak 21.

■ LANA

• Burlatako udalak, administrari laguntzaile bat eta 5 udaltzain lanpostu bete nahi ditu. Epea: martxoak 8.

• Salazar eta Nabaskuesgo Mankomunitateak, administrari laguntzaile bat eta gizarte laguntzaile bat behar ditu. Epea: martxoak 15.

■ LEHIAKETAK

• Donostiako Jazzaldia iragartzeko kartel lehiaketa. Epea: martxoak 14.

■ EUSKAL DANTZA IKASTAROA

• 15 urtetik gorakoei zuzendua, ostiraletan, arratsaldeko 7etatik 8.30etara, martxoaren 14tik San Juanak arte. Matrícula 1.000 pta. Plaza mugatuak. Bikote mixtoek lehentasuna izango dute.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

Egun Arrasate Musikaleko saxo irakaslea da. Aurrez *Tennessee* musika taldean jo zuen.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Arrasateko erdialdean apartamentua saltzen da. Berogailu zentrala eta ganbararekin. Tel.: 79 52 93. Eguerdian edo gauean.

• Eguzki dorrean 80 m²ko etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua da eta erdi jantzita dago. Tel.: 79 23 67.

• Aramaion pisua salgai. Tel.: (945) 44 50 50.

• Larreako etxeetan etxebizitza salgai. Tel.: 79 36 79.

• San Josepe auzoan 65m²ko etxea salgai. Tel.: 77 08 06.

• Juan Carlos Guerra plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 41 48.

• Eguzki dorrean 80 m²ko etxea eta 20 m²ko garajea salgai. Oso eguzkitsua da eta erdi jantzita dago. Tel.: 79 23 67.

2. Erosi

• Etxe bila nabil, unifamiliarra, adosatua edo txaleta. Alokatzeko edo erosteko. Deba Bailaran edo inguruetan. 130 m² izan behar ditu gutxienez, jardina eta garajea. 76 91 30.

• Deba Garaian 60 m²ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

• Apartamentua alokatzen da Torrevejan, hileka edo 15 eguneka. Playa del Curaren ondoan dago. Tel.: 79 32 54.

5. Etxe konpartituak

• Deustuko ikasle pisu batean gela bat alokatzen da oso prezio onean. Tel.: 79 19 96.

• Logelak alokatzen dira erdialdean dagoen etxe batean. Tel.: 79 87 59. Tere.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakutak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Arimazurin garaje itxia salgai. Tel.: 79 97 18.

• Uribarri etorbidean garaje itxia salgai. Tel.: 79 60 96.

9. Errentan emateko

• Lehengo Villa Amparo zenaren tokian garaje itxia alokagai. Tel.: 79 19 62. Gauez.

• Garajea alokatzen da San Andresen. 65 m². Tel.: 79 13 52.

10. Errentan hartzeko

• Garaje txiki bat behar dut alokagai Arrasaten. Tel.: 79 22 92.

LOKALAK

12. Saldu

• Martxan dagoen negozio salgai. Tel.: 79 00 00.

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel.: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

15. Errentan hartzeko

• Lokala alokatuko genduzko lagun artean erabiltzeko. Tel.: 79 35 50.

16. Bestelakoak

• Lokal komertziala eskuz aldatzen da, beheko eta lehenengo solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

• Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Emakumea gertu orduka etxeko lanak egin edo pintxe bezala lan egiteko. Vicen. Ferrerias kalea, 30-2. solairura hurbildu.

• Emakumea orduka lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 23 54.

• Esperientziadun neska etxeko lanak orduka edo egun osoz edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 79 31 44.

• Klinika laguntzailea eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

• Jangelan eta tabernetan esperientzia duen neska lan egiteko gertu. Tel.: 79 73 42.

• Etxeko lanak egin edo aterteak garbitzeko neska gertu. Tel.: 929-47 72 65.

• Arrasaldez umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu nago. Tel.: 79 54 06. Maitane.

• Arrasaldez etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Neska euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 98 96.

• Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 25 52.

• Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 95 92. Rakel. Gauean.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska gertu, dena, atarte edo tabernak garbitzeko. Tel.: 79 64 46.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainduko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

18. Eskaerak

Umeak zaintzeko neska behar da. Tel.: 79 90 94.

• AEKko euskaltegira irakasleak behar dira. Dei egin euskaltegiara. Tel.: 77 03 69.

• 35 eta 55 urte arteko emakumea behar da adineko bikotea zaintzeko. Dei egin Betatik aurrera. Tel.: 76 51 67.

19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gazteleraz. Tel.: 77 11 84.

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

IRAKASKUNTZA**20. Eskaintzak**

- OHOk eskola partikularrak ematen ditut. Tel.: 79 68 18. Agurtzane.
- Kimikan lizentziaduna taldeka klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 42 97.
- Titulodun irakaslea LH eta DHBHko klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 94 04. Marijo.

21. Eskaerak

- Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisia, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.
- Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsaldez edo gauez. Tel.: 79 55 04.

MOTORRA**23. Saldu**

- Txorizoak eta abar ebakiteko hara

tegiko makina salgai. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 71 50 72 / 79 81 70.

- BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

- Suzuki GSX 600 F motorra salgai. Txuri-urdina eta ia berria. Tel.: 79 95 82. Andoni. Ordutegia: 13.15etatik 14.15etara.

- Kawasaki Vulcan 500 motorra salgai. 8.000 km. Egoera ona. Tel.: 76 64 70.

- Egoera onean dagoen Ford Fiesta salgai. Tel.: 79 00 53. Olga.

- Fiat Regata autoa salgai. Egoera onean dago. Prezioa: 350.000 pta. Tel.: 79 25 19.

DENETARIK**26. Saldu**

- Fruitadenda bateko apalak salgai. Benetako prezioa 1.500.000 pta. ko da baina nik 300.000 pta. tan saltzen ditut. Berri berriak daude. Tel.: 79 37 82.

- 1.05m. ko oheakoltxoi etaguzti, sekterra eta mesanotxea salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

- Fibro markako bi berogailu salgai. bakoitzak 20.000 pta. tan. Tel.: 77 07 74.

- Arraza oneko txakur kumeak salgai. Tel.: 74 28 64.

- Josteko makina mueble eta guzti salgai. Tel.: 79 22 92.

- Hammer markako snowboard tabla salgai. 1,38 m. Prezioa: 20.000 pta. Tel.: 79 33 58.

- Dynaster skiak (1,85 m.), eta Marker fijazioak salgai. Prezioa: 18.000 pta. Tel.: 79 33 58.

- Cort Luxe gitarra elektrikoa gehi Zoom 900-S efektu prozesatzailea: Biak, 100.000 pta. Suelto erostekotan: 55.000 pta. bakoitzak. Tel.: 79 16 36. Txus edo Toño.

- Boss Me-5 peldala 45.000 pta. Tel.: 79 95 83. Josu.

- Peavey Combo baxu anplifikatzailea salgai. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 16 36. Toño.

- Portaeski eta kotxe gainean jartzeko parrila salgai. Tel.: 79 00 99.

- Ingalaterrara bidaiak 170.000 pta. tan. Amaia. Tel.: 79 53 58.

- Cibro markako berogailua eta Fagor markako ur berogailuak salgai. Tel.: 79 81 25. Gauez.

27. Erosi

- Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

- Bigarren eskuko seaska bat egoe-ronean erosiko nuke. Tel.: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.


33. Bestelakoak

- Zuk nahi duzun guztia esango dizut Tarota irakurriz. Tel.: 907-43 13 62.

HARREMANAK**37. Denetarik**

- Astelehenetik ostiralera Leioara joan behar dut eguerdiko 3etarako eta 8etan bueltatzeko. Nirekin kotxean joateko interesaturik bazaude dei egin 79 48 83 telefonora, gastuak erdibana egingo ditugu.

TOMAS ARRAINDEGIA



Martxoaren 4tik aurrera!
Goiz eta arratsalde zabalik!

Olarte, 3 • ARRASATE • Tel.: 77 16 79

■ Arantzazu Zubia

GIMNASIA ERRITMIKA ETA AEROBIC IRAKASLEA



1 967ko uztailaren 25ean jaio zen Arrasaten. T.A.F.I.T, Aeorobic instruktore eta Nazio mailako gimnasia erritmikoko entrenatzaile ikasketak egin eta gero, Musakolako kiroldegian ari da lanean nekea ezagutzen ez duen neska hau. Lehen *Tatu* deitzen ei zioten.

1. Zein da zure horoskopoa? Leo.

2. Sinestuna zara? Bai, baina ez dut horoskopoa sinisten.

3. Animalia bihurtzekotan?

Edozein katuki.

4. Zure akats bat/gauza on bat?

Nagikeria/Besteek esan dezatela.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Gauza askok.

6. Amets bat? Orain naizena bezain zoriontsua izatea beti.

7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gerrak eta bere ondorioak.

8. Gertakizun historiko bat?

Gizakia ilargira heldu zenean.

9. Nor miresten duzu? Nire amaren aita, nire aitona.

10. Zeri diozu beldurra? Lesionatzeari.

11. Zertaz damutzen zara? Erabiltzen ez ditudan gauzak erosteaz.

12. Negar egin duzun azken aldia?

Lagun bat hil zenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Autobus urbano bat eta eguzki gehiago.

14. Eta zuri? Genio txar gehiago.

15. Lanbidez aldatzekotan?

Hautzaindegi batean.

16. Arrasateko gustoko toki bat? Monterron.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Lagun bati telefonoz deitzea bazkaltzera geratzeko.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Aurkitzen dudana lehena.

19. Gustoko janari bat? Arraina.

20. Liburu on bat? *La mirada del otro*.

21. Filmerik onena/txarrena? *El Cazador/Rambo*.

22. Musika talderik onena/txarrena? The Clash/Jesulín de Ubrique.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? *El mundo oscuro/El semáforo*.

24. Egin dizuten oparirik politena? Hartziko txerrixo larrosa bat.

25. Denbora librean zertan pasatzen duzu? Deskantsatzen.

26. Oporretarako toki bat? Irla eguzkitsuren bat.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Fregatua.

28. Gomendio bat? Ez egin besteei zuri gustatuko ez litzaizuten hori.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Maite dudana pertsonengatik, uste dut.

30. 200 milioi irabaziz gero? Ez nuke sinistuko.

“Urtean zehar milioika kilometro zure bidalketak puntualki eramaten”



Bizkaia Etorbidea, 16 behea
20.500 ARRASATE
79 92 77

DOKUMENTU ETA PAKETEEN GARRAIO AZKARRA
900 100 000
Informazio orokorra
<http://www.nacex.com>
Email: nacex@nacex.com

Bi kontzertuen kronika

Asteburuan burua astinduz


Joan zen ostiralean kontzertu polita izan genuen Arrasateko kiroldegian, AGAKOk antolatuta. Eibar-Gasteiz autopistaren aurka lemapean. *Ekon*, *Flitter* eta *Su Ta Gar*.

Arrasatekoek show ikusgarria eskaini ziguten. Kiroldegian zeuden 300-400 lagunak behintzat oso gustora geratu ziren gazte hauek eman zutenarekin. Txalaparta eta guzti eraman zuten. Ez nau batere harritzen *Villa de Bilbao* lehiaketan euren estilotan bederatzita talderekin batera klasifikatu izana.


*Flitter*en saioa ere ez zen batere makala izan nahiz eta abeslariak ahotsa pixka bat lastuta eduki. Beti bezala euren erritmo eta gitarreo potenteei bizitza emanaz. Batez ere euren lan berriaren aurkezpena izan zen, *Ciudadano Masokista* izenburupean argitaratu dutena. Lizarrakoek maila ona erakutsi zigten.

Dinosaurioak munstro hilak ez direla ere argi utzi zuten. *Su Ta Gar* taldeak betikoa izaten jarraitzen du. Nola ez, *Sentimenak jarraituz* bildumari errepaso on bat eman zioten, baina euren kanta kañeroenak ez zituzten bazterrean utzi, haiekin flipatzeko beta ere izan genuen.

Azpirarratzekoa izan zen ere larunbatean gaztetxean egon zen kontzertua. *Berri Txarrak*, Iruñetik, eta *Hamlet* Madriletik. Oso ikuskizun fina bi talde hauena. Lehenbizikoan aldetik, musika landua entzuteko parada eman ziguten mutil kañero hauek, berriz ikusteko gogoarekin utzi gintuzten, batez ere bil-



Su Ta Gar.



Ekon

duma zabalago batekin. Badi-rudi urte honetan CDA aterako dutela. Ostean, *Hamlet* eta euren *Revolución 12.111* CDa.

Jendea gustora, eta saltoak ugari. A ze nolako kaña daramaten mutil hauek gorputzean. Abeslariaren oihauek eta dantzak ikusgarriak bene-

tan. Taldea benetan gustora geratu zen jendearekin, eta alderantziz, nahiz eta jende asko ez egon *Hamlet*ekin bat egin zegoen. Adi egon zaitzete. Informatuko zaituztegu aurrerantzeko kontzertuetan kale ez dezazuen egin.

Eneko Allende

Euskararen Txokoa

Itxoizue apur baten...

Telefonoak jo eta erantzuten dogunean:

- Bai! esan!....

Horren ostean, berbertan hasi eta halako batean, norbait etorri jatzu aldamera, edo eskaratzean lapikoren bat daukozu gainezka hauxe etorten jat burura:

- Itxoizu apur baten,... (pausa)... (eta barriketan hasi barriro).

Hortaz, baten bati itxoi-tteko esaten dautsogunean horrelaxe esan behar dautsogu, eta ez honela:

- Itxoin apur bat (aspaldi honetan jende askok esaten dauen moduen). TXARTO.

Beste batzuk: itxoixu pittin baten, itxoizu apur baten, itxan(itxaron) apur baten...

"Baten" hori esan barik, beste batzuk edo batuan, "batean" ebalten daue.

Edozelan be, halakuek be esaten die:

"egon zaittez hemen apur baten", "eukizu euri-takoa apur baten", "erdu hona apur baten edo zatoz hona apur baten"; "apur baten egon behar dozu umiekin"

Danak "zenbat denbora"ri erantzuten dautsie.

Noiz esan "apur bat"?: kopurua, kantitatea adierazten duenean; Zenbat baba erosi dozu? Apurtxo bat, apur bat, piska bat, pittin bat... "Arroz apur bat erosi dot bazkaltzeko"

Zain egotiek merezi izan dauelakuen....

Karmelo Uribarren eta Joxerra Agirreurreta

■ **Horoskopoa**

- **Aries** Trankil, haize bolada batek ez zaitu eramango eta.
- **Taurus** Maiteminduta zaude baina minduta ere bai. Hori nahastea!
- **Gemini** Batzuetan pozez ere egiten da negar.
- **Cancer** Ez zara edozer gauzarekin konformatzen, ezta?
- **Leo** Zure bizitzaren trena abiadura handiegian doa.
- **Virgo** Goenkaleko Maria Luisa baino txarragoa zara.
- **Libra** Dena bidaliko zenuke haizea hartzera, baina ez da egokiena.
- **Scorpio** Gutun bat jasoko duzu, baina beti bezala banketxetik.
- **Sagitarius** Dakizun hori ikusten duzunean masailak gorritzen zaizkizu.
- **Capricorn** Ahots goxoz hitz egiten ikastea komeni zaizu.
- **Aquarius** Pasiorik ez zaizu falta baina jakinduria berriz izugarri.
- **Piscis** Aldamenekoak berria zuk noiz eman zain daude.

■ **Gurutzegrama**

1	2	3	4	5	6	7		
8			9					
10		11						
12						13		
14					15			
16			17		18	19		
20								

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Ezaguna ez dena. 8. Tantaloa. 9. Eztarria estutuz norbait itoarazi. 10. Xume bihurtu. 12. Zerbait eragozten duen pertsona. 14. Letoniako hiriburu. 15. Lehena bi aldiz. 16. Euskal mitologiako harria, Aralar mendian. 18. Intelligence Service. 20. Nafarroako udalerrria.

Bertikalak 1. Zurgin kantoiko taberna bat. 2. Norbaiti zauria egin. 3. Lurpean egindako gartzela. 4. Artaburu horiak ematen dituen laborea. 5. Izaki bizigabea. 6. Alde hemendik. 7. (Ald.) Espazioan posizio bat izan. 11. Altzo. 13. Lurra iraultzeko lanabesa. 17. Herri Batasuna. 19. Gipuzkoako ibilgailuetan.

Lata. 17. HB. 19. SS.
Bertikalak: 1. Eixerat. 2. Zauritu. 3. Ziega. 4. Arto. 5. Gauza. 6. Ur. 7. (Ald.) Egon. 11. Magal. 13. IS. 20. Tulebras.
Horizontalak: 1. Ezezagun. 8. Ta. 9. Irato. 10. Xumeu. 12. Eragozle. 14. Riga. 15. AA. 16. Ata. 18.

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

SIRIMIRI

Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

Maider Eguesek *Kili-Kolo* lehiaketa aurkeztuko du ETB1en

Maider Eguesek, ATBko informatiboetako aurkezle eta Arrasate Presseko kazetariak, *Kili-Kolo* saio berria aurkeztuko du Euskal Telebistaren lehenengo katean. *Kili-Kolo* ETB-2ko Rombecabezotas lehiaketaren bertsio euskalduna izango da eta Maider Angel Alkain aktorearekin batera arituko da aurkezle lanetan. Lehiaketa berria astegunetan arratsaldeko 3etan ikusi ahal izango da martxoaren 3tik aurrera.

ETBko lan berriak ez du Maider ATBko kamaretatik eta Arrasate Press aldizkariatik urrunduko, bi lanak batera eramango ditu eta.



Arrasate Irratia FM 107.7

Egunero
9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina
14.30 Bixau orduan

Astelehena
22.00 Caravansera
musika saioa.

Asteartea
22.00 Euskal Festa.

Asteazkena
22.00 KK2A

Osteguna
21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

Ostirala
22.00 KGB informatika saioa

Larunbata
9.30 Jailarai umeendako saioa.
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

■ ATBko asteko programazioa

28 Ostirala	3 Astelehena	4 Asteartea	5 Asteazkena	6 Osteguna	7 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Lotsa Barik. Gonbidatua: Goenkaleko Txapas. (Errep.)	13.30 Gozategiz Blai. (Bigarren zatia)	13.30 Kukaratxa Motel (errep.)
21.30 Astebete. Gaia: Internet	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	19.15etan Kukaratxa Motel	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport	21.30 Lotsa Barik. Gonbidatua: Goenkaleko Txapas.	21.30 Gozategiz Blai. (Bigarren zatia)	20/20.30/21.00 Berriak	21.30 Astebete
				21.30 Kukaratxa Motel	



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak



Emakumezko Mondra taldearen hamargarren urteurrena betetzen da asteburu honetan, behintzat ospakizunerako ekintzaren bat edo beste antolatu dute. Futbol talde batentzat ez da denbora larregi, baina gauzak majo aldatu dira ordutik hona.

Hasieran porrotak besterik ez zituzten ezagutu emakumezkoak; hala ere, ilusioz, borondatez eta gogoz ekin zioten ekindako bideari. Ahalegin horrek poliki poliki ekarri du fruiturik, noizbehinkako garai-penak lehenengo, sarriago beranduago... iaz emakumezko Mondrak mailaz igotzea lortu zuen arte. Igoera

kasualitatea ez zela egiaztatzeke, taldearen aurtengo martxa, askok hasieran uste baino hobe.

Argazkian, emakumezko Mondrak jarri zuen lehen talde titularra, entrenatzaile eta guzti. Ezkerretik hasita: Rosi Otaduy, Jone Lasagabaster, Izaskun Diaz de Gereñu, Onintza Arregi, Jone, Eli, Saioa

Zabarte, Aitziber Zulaika eta Roman Lopez. Beheko ilaran, ezkerretik hasita: Idoia, Bakartxo Luengo, Iratxe Vazquez, Bea Alkalde, Esti Loiti, eta Urri Urizar.

Urtea: 1987.

Argazkia: Mondra taldea.

Informazioa: Iratxe Vazquez.

LASA JATETXEA

Bergara ■ Tel.: 76 10 55

(Saihesbide irteera: **Hegoaldea**) ■ Eskontzarako saloi aproposa



Monumentu nazionala.

Aste honetako degustazio menua

- Ahatearen gibelaz trufatutako aspica.
- Tosta holandarra.
- Txanguroz betetako legatza.
- Oreina bi saltsaz erreta.
- Sorbeteak.
- Ogia, 3 urteko ardo eta ura.
- Kafea eta pikamendiak

4.900 pta. + %7ko BEZ-a

Aparkaleku pribatua, terraza eta lorategia



PARDO estetika zentrua

***Solarium-ean eskaintza berezia,
(Dutxarekin).**

LEHEN

**11 sesio
12.000 pta.**

ORAIN

**11 sesio
8.000 pta.!!**

**Aste Santuko oporretan gustora
sentitzeko emaiizu kolorea zure
gorputzari.**

*Eskaintza hau martxoaren 31n amaitzen da.

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎: 79 52 17 • ARRASATE

**Ez galdu
aukera
hau!**



VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE
Ibargarai, 24 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.



IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



**Sukalde altzari
berri eta
esklusiboenak.**



FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42